

# EUSKAL ERRIKO KANTARI BARRIAK

Euskal kantua, gora ta gora doa. Gero ta obeago. Kantariak be, gero ta ugariago ditugu; eta zalantza\* barik, gero ta obeagoak be bai. Ikusgarria izaten da euskal jaialdi bakotxa. Gogoan ditut orain, Mondragoekoa, Bilbaokoa, Gernikakoa, Zarauzkoa: jentea irakin bearrean, olan berba egiterik badago. Seiñale ona.

Azkenaldi onetan suertez ibilli naiz. Euskal kantari batzuk ezagutzeko erea euki dot, eta ez dot alperrikaldu.

## ERLAK



«Erlak»

Neska polit, gaztetxu ta atsegin bi dira oneek. Ez diñot guzurrik; erretratua ikusi, bestela. Lurdes kitarreagaz. Biak kantariak. Etorkizuna ba daukela euskal abestian uste dot. Biak, Joseba Gotzon Legorburugaz dabilta bazterrik bazter. Joseba Gotzon, Lurdesen osabea da. Lurdes, andereño ikasten dabil. Irurokin mintzatzen\* naiz.

—Nongoak zaree?

—Pasaj Donibanekoak.

—«Erlak» izenorde ori nondik jatortzue?

—Arrain zuri baten izena da. Pasaikoak gara ta..., ulertuko dozu.

—Noiz asi ziñeen kantetan?

—Bost edo sei illabete dala.

—Non leenengo aldiz?

—Legazpian.

—Ta gero?

—Leku askotan entzun ditue gure abestiak: Errenderian, Oriako Alegrian, Amezketan, Lezon, Eibarren, Zarautzen, eta abar.

—Ta Bizkaian egon zaree?

—Baita, asko ez dala, Getxon.

—Sari arazoan ondo zabilte?

—Txarto be ez. Oriako Alegrian, Euskal Abestiaren leenengo saria eskuratu genduan. Eibarko Sanjoanetako norgeiagoka nagusi aretan be, azkeneraño eldu giñan. Ta oraintsu, Bilbaoko beste sari ori.

—Ze kanta mueta abestuten dozue?

—Batzuetan gureak, eta beste batzuetan kanpokoak.

—Ta zuk, Joseba Gotzon, zer egiten dozu bikete onen artean?

—Itza ta doiñua, neuk egiten ditut; eta iñondik doiñua artzen dogunean, letrea ipintea neure kontura doa.

—Ondo da. Ta zein jatzu atsegiñago, «amodiozko» letrea ala «gogorra»?

—Bietarik erabilten dogu, zegaitik ez. Baiña gure Erriaren gaurko egoerea ikusirik, diñozun letra «gogor» ori jat begikoena.

—Diskorik?

—«Hegosa», Donostiako etxe barri orretan ataratekotan gabiltz.

—Euskal kantuaren barrutian\*, ze mandatu\*, emon gura dozue?

—Guk, musika zaarra gaurkotu egin nai geunke, ta oraingoa euskaldundu. Baiña batez be, gure Erriaren Bizkuntza ori sortu erazoten lagundu gura geunke.

—«Bejondaiuzela», Gipuzkoan esaten dan moduan.

## ITZAL URDIÑAK

Erderaz, «Sombras Azules». Erderazko izena emoten dot emen, oraiñarte erderaz ibilli dira ta. Euskal doiñuetara etorri barriak dira; ez dira euskal musikeagaz jaiokak. Zarauzkoa da talde au. Lau dira taldean.

—Noiz asi ziñeen kantetan?

—Igazko Sanjoanetan, erderaz, Zarau-



«Itzal Urdiñak»

tzen. Gero beste erri batzuetan egonda gagoz: Beasainen, Bergaran, Zumarragan, Usurbilen, Orion, eta abar.

—Euskeraz asko kantatu dozue?

—Leenengo jaialdia, gaurkoa. Illabete pare bat dala-edo asi giñan Benito Lertxundiren kanta batzuekaz Orion, bere errian ain zuzen be.

—Ta?

—Tomaterik ez egoala ikusirik, animatu egin giñan.

—Ze musika klase abestuten dozue?

—Benito Lertxundirenak eta Estitxurenak.

—Euskal abestian aurrera jarraitzekotan zagoze?

—Osorik ez bada be, euskeraz kantetan jarraituko dogu, dudarik be ez.

—Bizkaian izan zaree?

—Ez, baiña Naparroa aldera, euskeraz kantatuaz, Gabonaldian joateko gara.

—Zer ekarri gura zeunkee zuek euskal musikearen arloetara?

—Euskerazko kantuakaz, Inglaterrako talde baten antzekoak izan gura geunke.

Nire ustez, ba dauko inportantzia, talde au ta onen antzera erderaz asi diran one-lako beste talde batzuk, gurera etorteak. Onek asko esan gura dau. Gure musikea, ikusten danez, eskeko erropak erazten doa apurka apurka. Ta uste dot, emendik aurrera, artistak ez dabela euskeraz kantatuko, erriko prolemak edo abertzaletasuna sentitzen dabelako bakarrik, baita euren buruak eta izenak goian ikusi gura dituelako bere. Komertziala egingo da euskal kantua; exitu bidetik abiatuko da laster barru.

JOAN MARI TORREALDAY